

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4763

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 3koa, HABEko zuzendariarena, udal-titulartasunpeko euskaltegi publikoek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko aurkeztutako eskariak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, udal-titulartasunpeko euskaltegi publikoek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko dirulaguntzak arautzen dituen 2025eko maiatzaren 6ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, deialdira aurkeztu eta eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileak udal-titulartasunpeko euskaltegi publikoetako titularrak direla eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela.

Ikusirik, euskaltegiek dirulaguntzagai izateko eskatutako ekipamendu teknologikoa deialdi honetarako xede diren gelak digitalizatzeko baliabideak direla.

Kontuan hartuta, deialdiaren eranskinean adierazitako gehienekoa ezin dela gainditu eta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketa kostearen erdia laguntzen dela diruz.

EBAZTEN DUT:

1.– Eranskinean zerrendatzen diren udal-titulartasunpeko euskaltegi publikoei, gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko 46.606,20 euroko dirulaguntza onartzea, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik.

Esleitutako dirulaguntza hau izango da euskaltegi bakoitzaren gehieneko kopurua.

2.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gas-tua behar bezala zuritu ondoren, eta ebazpenaren 10. oinarriak aurreikusitako irizpideen arabera, hala behar balitz, kitapen-ebazpen baten bitartez doituko da.

Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2025eko azaroaren 3a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

Udal-titulartasunpeko euskaltegi publikoek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko esleitutako kopuruak:

1.– Onartutako eskaerak:

Erakunde Titularra	IFK	Diruz lagundutako materiala	Laguntza (euro)
Durangoko UE	P9803404D	Telebista elkarreragile bat	1.862,10
Zornotzako UE	P4800300H	Horma-pantaila eta proiektagailua	1.203,40
Sopelako UE	P4809900F	Arbel digital bat 65"	1.192,21
Leintz UE	P2000010E	Ukipenezko monitorea 65"	1.005,88
Urretxu Zumarragako UE	P2000007A	Arbel digital bat 65"	961,35
Tolosako UE	P2007600F	2 monitore elkarreragile 75"	2.632,70
Errenteriako UE	P2007200E	Ukipenezko monitorea 65" eta bideo-konferentziarako sistema	2.398,22
Barakaldoko UE	P9801701E	13 ordenagailu eramangarri, 13 kamera studio, mahai gainera 5 ordenagailu eta 5 monitore	18.212,98
Erandioko UE	P4812400B	Monitore elkarreragile bat 65"	1.161,60
Basauriko UE	P9801902I	4 Monitore elkarreragile 75"	4.045,14
Getxoko UE	Q4800695A	7 pantaila mugikor elkarreragile 65"	4.650,47
Zarauzko UE	P2800500G	Ukipenezko monitore bat 75"	1.332,56
Portugaleteko UE	P4809100C	4 ukipenezko monitore elkarreragile 65"	3.516,67
Txorierriko UE	P9803202B	3 pantaila elkarreragile 75"	2.430,93
			46.606,20

* Zerrendatutako materiala erakunde titularrek aurrekontuetan aurkeztutakoa da. Ekipamenduen gastuak eta hauen instalazioarena hartu dira aintzat